



BILERA-AKTA: ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA. 2015/03/11
ACTA SESIÓN 11/03/2015: MESA DEL DIÁLOGO CIVIL

Partehartzaileak:

KARGUAGATIKO KIDEAK

- ANGEL TOÑA GÜENAGA jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- IÑIGO POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Politiketako sailburuordea

KIDEAK

- JOSÉ LUIS MADRAZO JUANES jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria
- MIGUEL ÁNGEL HURTADO PEDROSO jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzako lege-aholkularia.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jauna, EAPN Euskadi ordezkatzuz, Europako pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako Euskadiko sarea
- PABLO MORATALLA SANTAMARIA jauna, EHLABE ordezkatzuz, Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarte
- KARMELE ANTUXUSTEGI andrea, ELKARTEAN ordezkatzuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasun fisikoa duten pertsonen konfederazio koordinatzailea
- M^a JOSÉ CANO MESIAS andrea, FEDEAFES ordezkatzuz, Gaixotasun mentala dutenen eta haien senideen elkartean Euskadiko Federazioa
- TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jauna, FEDERPEN ordezkatzuz, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkartean Lurralde Federazioa
- PABLO GONZÁLEZ GUTIÉRREZ jauna, FEVAS ordezkatzuz, Adimen-urritasuna dutenen aldeko elkarteetako Euskal Federazioa

- ESTEBAN RIVAS CALZADA jauna, GIZATEA ordezkatzuz, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte
- IÑIGO BIDAURRAZAGA VIDAL jauna, HIREKIN ordezkatzuz, Euskadiko gizarte-ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarte
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO andrea, HIRUKIDE ordezkatzuz, Euskadiko familia ugarien elkarten federazioa
- MANUEL MERINO PASTOR jauna, LARES Euskadi ordezkatzuz, Adinekoen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa
- GONZALO RODRIGUEZ AGIRREGOITIA jauna, REAS EUSKADI ordezkatzuz, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE

- ANA ARRIOLA andrea, CONGDeren ordezkaria, Garapenerako GKEen Euskadiko Koordinakundea
- SUSANA CUESTA MANJÓN andrea, HARRESIAK APURTUZen ordezkaria, Etorkinen aldeko Euskadiko GKEen koordinakundea
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jauna, ONCEren ordezkaria, Espainiako itsuen erakunde nazionala

GONBIDATUAK:

- LIDE AMILIBIA BERGARETXE, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
- XABIER OTXANDIANO MARTINEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria
- ADOLFO ALUSTIZA FERNANDEZ jauna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia
- JUAN IBARRETXE KARETXE jauna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntza eta Diru-sarreraren Bermeko zuzendaria
- MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA andrea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendaria.

Lekua:

LAKUA II – 2. Gela
&

<u>Eguna:</u>	2015\03\11 asteazkena
<u>Ordua:</u>	16:30 - 19:00
<u>Gai-zerrenda:</u>	1. Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. 2. Lan talde teknikoak egindako proposamena, Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzen duen abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuko II. Eranskinean zehaztuta ez dauden gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak organoan – gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen ordezkari moduan– egoteko bete beharrezko baldintzen inguruan. 3. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko lege-proiektuaren tramitazioaren egoera. 4. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea: lege garapenaren gaur egungo egoera. 5. Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzen 2015eko deialdia. 6. Gizarteratzeko ekintzei buruzko dekretuen eta deialdien egungo egoera. 7. Eskaerak eta galderak.
<u>Hizkuntza:</u>	Gaztelania

Bilkura 2015eko martxoaren 11n, arratsaldeko 16:30etan hasi da.

Bilkura hasita, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko Presidente Gonzalo Rodriguez Agirregoitia jaunak ongietorria adierazi dio organo honen bilkura batean lehenengoz dagoen Angel Toña Guenaga jaunari; aldi berean, aurreko Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburu Juan M^a Aburto Rique jaunak Elkarrizketa Zibilerako Mahaian izan duen parte-hartzea eskertu du.

Ondoren, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuari eman dio hitza, eta adierazi du hirugarren gizarte-ekintzako sektorearen ordezkariak duten erakundeek ordezkariak hitz egiteko aukera izango dutela, beren erakundearen aurkezpen laburra egiteko (aurrekariak, historia edota jatorria, ezaugarriak, bertan biltzen diren erakundeak, etab.) eta etorkizunari begira dituzten kezkak edo beraien erakundeetan eragina duten auziak planteatzeko.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak adierazi du berak zuzentzen duen sailak beti apustu egin duela hirugarren gizarte-ekintzako sektorearen alde, eta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eskaintzen duen kohesioa azpimarratu eta eskertu du. Amaitzeko esan du Mahaian dauden erakundeetako ordezkariekin aurrez aurre egoteko aukera izatea espero duela.

Ondoren, laburbilduta, hirugarren gizarte-ekintzako sektoreko erakundeek azaldu dituzten kezkak:

Esteban Rivas Calzada jaunak (GIZATEA) planteatu du beharrezkoa dela gizarteratzeko enpresen sorrera sustatzeko lan egitea, gaur-gaurkoz ez daudelako leku asko gizarte-

bazterketan dauden kolektiboentzako lana eskaintzen dutenak, eta azpimarratu du garrantzitsua dela orientazio- eta prestakuntza-programa edo -zerbitzuetara iristen diren pertsonen lan-merkatu arrunterako iraganbidea egitea erraztuko dieten neurriak eratzea, prestakuntza hutsarekin gera ez daitezen.

Azkenik, planteatu du beharrezkoa dela gizarteratzeko enpresen berri emateko plan bat egitea, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailarekin lankidetzan.

Alfonso López Martínez jaunak (EAPN Euskadi) kezka agertu du EAEn pobreziaren eta gizarte-bazterketaren tasak gora egin duelako, orain arte ikusi ez den mailara goratu ere, EAEko gizarte-babeseko sistema estatuko indartsuena izanik ere.

Era berean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 legeari dagokionez, adierazi du haren edukiaren zati bat bai garatu dela, diru-sarreraren bermeari dagokiona, hain zuzen ere, baina lege horren beste alderdi garrantzitsu bat, alegia, gizarteratzeari dagokiona, ez dela garatu, eta haren iritziz hori gertatu da, orain indarra duen Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana (2012-2016) ez delako egokia.

Pablo Moratalla Santamaria jaunak (EHLABE) adierazi du garrantzitsua dela ekintzak bultzatzea, desgaitasuna duten pertsonen enplegu babestutik lan-merkatu arruntera igarotzeko (eta bertan integratzeko) erraztasunak emango dituztenak, eta, halaber, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera, kolektibo horientzat atondutako enplegarritasun-programak hobetzea.

Manuel Merino Pastor jaunak (LARES Euskadi) nabarmendu duenez, badago kezka adineko pertsonen arretako egoitza eta zerbitzuen sektorean, eta zehazki, Erruki-etxeen sektorean (ongintza). Kezka eragin duena da ekimen pribatua, izaeraz merkataritza arlokoa, indarrez sartu dela jarduera-sektore horretan, irabazi-asmorik gabeko erakundeak lehian aritzera behartuz, eremu berean.

Bestalde, haren hitzetan, egoitzen erabiltzaileen profilak okerrera egin du, eta azken buruko baliabide bihurtu dira egoitzak, azken unekoak, eta kezka eragiten dio euskal administrazio publikoetatik horren aurrean ematen ari den erantzuna egokiena ote den.

Natalia Diez-Caballero Alonso andreak (HIRUKIDE) azpimarratu du Familiei Laguntzeko Legeari dagokion arautegia oso-osorik garatu behar dela, eta Europarekin bat egiteko data –legean 2020rako jartzen da– agudo iritsiko dela; horrek Eusko Jaurlaritza behartzen du familiei laguntzeko estrategia berri bat diseinatzera, eta horregatik erakutsi du prestasuna horretarako lankidetzan aritzeko.

Bestalde, laneko eta familiako bizitza bateratzeko laguntzei dagokienez, programa hori aurrekontu doi batez hornitu behar dela aldarrikatu du, eta eskubide subjektibo gisa hartu behar direla.

M^a José Cano Mesías andreak (FEDEAFES) kezka adierazi du onartzekoa den Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legearen testuaren eta horrekin lotura duten beste gai batzuen inguruan, esaterako hirugarren sektore sozialeko erakundeek bete beharreko Estatutu Juridikoa eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemako zerbitzuen eta prestazioen Zorroaren garapeneko arautegia.

Azkenik, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen gainean dagoen estigmari modu transbertsalean helduko dion mahai bat eratu behar dela planteatu du.

Karmele Antxustegi andreak (ELKARTEAN) aldarrikatu du beharrezkoa dela instituzioekin eskuz esku lan egitea eta beharrezkoak diren foro guztietan egotea, urritasun fisiko aitortua duten pertsonen eskubideen eta bizi-kalitatearen defentsan.

Horrez gain, aurreratu du ELKARTEAN erakundetik sailburuari bilera egiteko eskatuko diotela, erakunde horri dagozkion hainbat gairi buruz hitz egiteko.

Pablo González Gutiérrez jaunak (FEVAS) planteatu du beharrezkoa dela adimen-urritasuna duten pertsonentzako laguntzak antolatzea, helburutzat hartuta, egoera arintzea ez ezik, haientzako bizi-proiektuak sortzea; azken finean, haien kezka da zerbitzuak sortzea, eta kezkatuta agertu da adimen-urritasunaren arloa xurgatuko ez ote duen mendekotasuna duten pertsonen arretarako sistemak. Kezka hori lotuta dago egiaztagiri profesionalen edukiekin.

Iñigo Bidaurreazaga Vidal jaunak (HIREKIN) kezka agertu du lan-baldintzak hiru lurralde historikoetan homogeneizatu beharraren inguruan. Hori lotzen da Gizarte Zerbitzuetako Legea garatzeko egingo den arautegiarekin, zerbitzuen prestazioa hiru lurralde historikoetan homogeneizatuz doan neurrian.

Gainera, Gizarteratzeko Euskal Ituna behar dela planteatu du, eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluko kidea izateko eskaera egin du, enpresa-erakundeen ordezkari gisa.

Txema Odriozola Azurmendi jaunak (FEDERPEN) kezka agertu du Zahartze Aktiboko Euskal Estrategia 2015-2020 ekimenaren edukia dela-eta. Eusko Jaurlaritza ontzen ari da, eta oraindik zehazteko dago. Haren iritziz, bizitzaren aldi horretan zehar adineko pertsonen garapen integrala errazteko tresna izan behar du.

Bestalde, etxebizitzako plan berezi bat bultzatu eta ezarri behar dela planteatu du, adineko pertsonen etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko, pertsona horiek beren etxean hil nahi izaten baitute. Orobat, sail-arteko organo baten beharra sortu behar da, adineko pertsonentzako politiken transbertsaltasuna bermatzeko eta gizarte zahartzearen aurrean egokitzeko bidean aurrera egiteko, gai hori agertzen den ekimen ugariak koordinatuz.

Eta azkenik, adineko pertsonen ordezkartza zabalagoa eta hobe eskatzen du lurralde-eremu guztietan, parte-hartze aktiboa izan dezaten Euskadiren garapenean; erabakitze prozesuetan zahartzen ari diren pertsonen ordezkartza eredu berri formulatu behar da, adinekoen erakunde eginkizuna indartzeko.

Gonzalo Rodríguez Agirregoitia jaunak (REAS EUSKADI) planteatu du ekonomia solidarioko proposamenak landu behar direla, oinarritzat hartuta beste ekonomia bat posiblea dela, eta horretarako beharrezkoa dela proiektu estrategikoak eratzea, helburu hauei begira: kontsumo agroekologikoa, banku etikoa, kontsumo arduratsua, giza garapena tokian tokikotik abiatuta, eta gizarte- eta ingurumen-proiektu jasangarriak.

Azkenik, lan-merkatu arruntaren inguruko kezka adierazi du.

Hitzaldien txanda amaituta, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hartu du hitza, ekarpenak eskertuz hirugarren sektore sozialeko erakundeei, haien kezka eta ekimenen berri izateko aukera eman diotelako, eta egiaztatu ahal izan duelako oraindik eginkizun asko daudela, hirugarren sektoreko erakundeekin eskuz esku landu behar direnak.

Azkenik, adierazi du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez duela eskas sentiberatasuna eskaera guztiak entzun eta haiei arreta eskaintzeko, baina aurrekontua, ordea, bai duela eskasa, eskaera horiei guztiei erantzuna ematerakoan.

Ondoren, Elkarriketa Zibilerako Mahaiko lehendakariak bide eman die gai-zerrendako puntuei, emaitza honako hau dela:

1. PUNTUA.- AURREKO BILERAKO AKTA IRAKURTZEA ETA -EGOKIA BADA-ONARTZEA.

Bertaratuek aho batez onartu dute 2014ko urriaren 27an egindako bilkurari dagokion akta.

2. PUNTUA.- LANTALDE TEKNIKOAK EGINDAKO PROPOSAMENA, ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA ERATU ETA ARAUTZEN DUEN ABENDUAREN 11KO 283/2012 DEKRETUKO II. ERANSKINEAN ZERRENDATUTA EZ DAUDEN BAINA HIRUGARREN SEKTOREKO GIZARTE-EKINTZAREN ORDEZKARIAK DIREN ERAKUNDEAK MAHAIRA BILTZEKO MODUA ETA BALDINTZAK EZARTZEKO HELBURUA DUENA.

Bertan diren ordezkari gehienen aldeko botoekin (10 boto alde) honako erabaki hau hartu da:

AURREKARIAK

Abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuak, Elkarriketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzen duenak, 6. artikuluan garatzen du kide anitzeko organo horren osaera. Horri dagokionez, eta zehazki, gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko ordezkartaz ari dela, hau ezartzen du:

I.- Elkarriketa Zibilerako Mahaian gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen ordezkari moduan diharduten kideei dagokienez, lehenengo 14 kideak dekretu honen eranskinean jasotako bigarren mailako erakundeek eta sareek aukeratuko dituzte.

II.- Ondoren, gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen izenean jarduteko beste bi kideak, Elkarriketa Zibilerako Mahaiak bere funtzionamendurako onartuko duen erregelamenduan adierazitako moduan aukeratuko dira.

III.- Hala ere, aurreko paragrafoan aipatutako erregelamendua onartzen ez den bitartean, Elkarriketa Zibilerako Mahaiak, mahaia osatzen duten kideen gehiengo osoarekin, bi kide horiek aukeratu ahal izango ditu, edo haietako bat, horretarako zenbait kolektiborentzat lan egiten duten entitateak biltzen dituzten eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorean diharduten erakundeak edo sareak kontuan hartuta.

IV.- Azkenik, aurreikusten denaren arabera, Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren funtzionamendurako erregelamenduan zehaztuko da, aurreko atalean aipatutako bi kideak onartzeko prozeduraz gain, organo horretako kide diren erakunde edo sareak, baja eman edo utzi nahi izanez gero, ordezkatzeko prozedura ere.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Aurreko bi aurreikuspenetatik baldintzatzaile argi bat ondorioztatzen da, Elkarriketa Zibilerako Mahaiko kideen jardunbidea zuzendu behar duena, hirugarren sektoreko gizarte-ekintzaren ordezkariak diren bi kideak, abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuaren II. eranskinean ageri ez direnak, izendatzerakoan; baldintzatzaile hori izendatzen diren erakundeek bete beharreko baldintzei lotua dago.

Baldintza horiek bi dira, biak ere bete beharrekoak:

- 1.- Erakundeak biltzen dituzten organismo edo sareen ordezkariak izan behar dute.
- 2.- Haien jarduera-eremua hirugarren sektoreko gizarte-ekintza izango da.

Bestalde, eta erakunde horren jardueraren helburu diren herritarren ezaugarriei dagokienez, ez dira zehazten eta, beraz, gai hori irekita geratzen da kolektibo mota guztientzat, «askotariko kolektiboak» adierazpidea erabilita.

AKORDIORAKO ROPOSAMENA

Kide izateko baldintzak eta lehentasunak

Aurrekoaren guztiaren ondorioz, ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte, oro har, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian hirugarren sektoreko gizarte-ekintzaren ordezkari gisa egotea eskatzen duten erakundeek, kide anitzeko organo horretako kide gisa izendatuak izan ahal izateko.

- 1.-Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar dute.
- 2.- Haien jarduna Euskal Autonomia Erkidego osoan gauzatuko da; izan ere, ez da nahikoa hiru lurraldeetatik bitan jardutea.
- 3.- Antolakunde edo sare horiek erakunde-elkarte edo sareak izan behar dute, ulertzen baita, elkarte edo sare horiek ordezkatzeko dituztela bigarren mailako eta goragoko beste hainbat erakunde, bai eta beren lurralde edo jardute-eremu geografikoan ordezkatzeko dituen inongo sarerik edo antolakunderik ez duten eta kolektibo jakin baten ordezkari diren Euskadiko gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko esku-hartze zuzeneko antolakundeak ere.
- 4.- Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea izango da jardute-eremua; jardute-eremu horretakoak dira talde jakinetan esku-hartze sozialeko jarduerak egiten dituzten erakundeak, jarduera horien helburua hauxe izanik: kalteberatasun edo bazterkeria, babes gabezia, desgaitasun edo mendetasun handiko egoerak jasaten dituzten pertsonak, familiak, taldeak, kolektiboak eta komunitateak gizarteratzeko eta dagozkien eskubideak benetan baliatzeko ekimenak sustatzea.
- 5.- Erakundeak ez du Elkarrizketa Zibilerako Mahaian ordezkatzeko egon behar, jadanik parte hartzen duten gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko sare edo federazioen bitartez.

Goian aipatutako baldintzak kide izateko eskaera egin duten erakunde guztiek betetzen badituzte, lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian sartzeko:

- 1.- Erakundearen jardute-eremuaren helburua izatea gaur Elkarrizketa Zibilerako Mahaian ordezkari gisa ez duten kolektiboak.
- 2.- Erakundearen «Gizarte-sarearen bolumena», alegia, bazkide-kopurua, artatutako pazienteen kopurua, boluntario-kopurua eta erakunde hori osatzen dute entitateen kopurua.
- 3.- Antzintasuna, erakundearen sortze-dataren arabera.

Aurreko akordioa ontzat hartuta, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian hirugarren sektoreko gizarte-ekintzaren ordezkari izateko hautagaitzak aurkezteko deialdia ahal den gehiena zabaltzeko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez egiteko aukera aipatu da,

deialdi horretan jasoz helburua, epea, hautagaitzen aurkezpena, agirien aurkezpena eta hautagaitzen balioespena.

3. PUNTUA.- EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALARI BURUZKO LEGE-PROIEKTUA

Gizarte Politiketako sailburuorde Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak jakinarazi du Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko Lege-proiektua legebiltzarreko fasean dagoela eta osoko bilkurara eramango den lege-ebazpena falta dela. Ondoren argitu du Eusko Legebiltzarrean dauden lege-proiektuen tramitazioa independentea dela eta, beraz, litekeena dela aipatutako lege-proiektua tramitatzea lehenago, hura euskal ganberan sartu zenerako hau zeuden beste batzuk baino.

Iñigo Bidaurreazaga Vidal jaunak (HIREKIN) lege horren garrantzia nabarmendu du eta Eusko Jaurlaritzari proaktiboa izateko eskatu dio, haren onarpena lehentasunez bultzatzea.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak erantzun du esanez, hauteskundeak ikuspegi osoa hartuta (hauteskunde ugariak izanik), eta kontuan hartuta Eusko Jaurlaritza zuzentzen duen alderdiak Legebiltzarrean gutxiengoan dagoela, logikoa dela legea adostasunez onartzea, baina lan egin behar dela lehenbailehen tramitatzeko, haren aurkako edozein osoko zuzenketa aurkeztuz gero, izapidea bertan behera gera daiteke eta.

Azkenik, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailerik adierazi dute Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko Legearen eta Boluntariotzaren Legearen aurreproiektuak gobernu zentralak prestatu dituela, Konstituzioaren 149.1.1. artikuluen babespean, lege-testu horietan jasotzen diren xedapenak oinarritzekoak izan daitezkeen autonomia-erkidego guztientzat. Horrek autonomia-galtze handia dakar, eta Eusko Jaurlaritzak beharbada helegitea ezarriko du haien aurka. Hala ere, horrek ez luke eraginik izango Eusko Legebiltzarrean Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko Lege-proiektuak daraman tramitazio-bidean.

4. PUNTUA.- 12/2008 LEGEA, ABENDUAREN 5EKOA, GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKOA: HURA GARATZEKO ARAUTEGIAREN EGOERA

- **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroari buruzko Dekretuaren proiektua**

Gizarte Zerbitzuetarako Erakunde arteko Organoak EAEko administrazio publikoen hiru mailak biltzen ditu (autonomikoa, forala eta tokikoa), eta arau-proiektuaren aldeko txostena eman du. Ondorioz, haren tramitazioak aurrera egin du, eta dagoeneko txostena eman du Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ere.

Gaur-gaurkoz, dekretuaren proiektuaren tramitazioa amaitzeko, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena falta da. Hilabete bat du horretarako eta, ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatu behar da. Bi hilabete dituzte delako organo horrek irizpena emateko, eta hori izango litzateke azken izapidea dekretu-proiektua Gobernuaren Kontseilura eramateko, hark onartzea.

Dekretu-proiektuaren onarpenak ekarriko du Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, garatzeko aukera, eta herritarrek ezagutu ahal izango dute, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, zein zerbitzu eskuratzeko eskubidea duten.

Ondoren, dekretu-proiektuaren egoera baloratzen dute hirugarren sektoreko erakundeek:

Karmele Antxustegi andreak (ELKARTEAN) adierazi du oso larria iruditzen zaiola, eta berak ordezkatzeko duen urritasun fisikoa duten pertsonen kolektiboarentzako kolpe gogorra dela dekretuaren testutik kentzea urritasun fisikoa duten pertsonen bizimodu independentea eramateko duten eskubidea; batez ere, aurretik egin ziren zirriborro guztietan jasotzen zelako.

Iñigo Bidaurreazaga jaunak (HIREKIN), aurrekoaren ildo beretik, azaldu du Zorroaren Dekretuak eskubidearen kategoria ematen diela zenbait zerbitzu eta prestaziori eta, beraz, ez zela logikoa bizimodu independenterako eskubide hori jasotzea, foru-aldundi guztiek ez dutelako gaur-gaurkoz garatzen, Gipuzkoako Foru Aldundiak baino ez.

Karmele Antxustegi andreak erantzun du esanez, horren ondorioz, konponbide desberdinak emango zaizkiola arazo bat berari, urritasuna duen pertsona bizi den lurralde historikoaren arabera.

Iñigo Bidaurreazaga jaunak adierazi duenez, une honetan ematen ez den zerbitzu edo prestazio bat eskubidearen kategoriara eramateak ez du logikarik, eta argitu du Zorroaren Dekretuan zerbitzu hori ez jasotzeak ez duela eragozten zerbitzua ematea, izan ere, ezbaian dena ez baita eskubidea, hura aurrera eramateko bidea baizik.

Amaitzeko, Pablo González jaunak (FEVAS) honako adierazpen hau egin du Sareen Sarearen izenean, hemen hitzez hitz jasotzen dena:

«Lehenik eta behin, elkar zoriondu behar dugu zerbitzuen zorroan lortutako akordioagatik. Gizarte Zerbitzuetako Legea garatzeko aukera dakar, eta lan partekatua eta kontsentsuzkoa egiteko gaitasuna erakusten du.

Bestalde, Sareen Sarean elkartzen garen gizarte-erakundeok ekarpenak, iradokizunak eta alegazioak eginez parte hartu ahal izan dugu, baina nahiago genukeen lanaren amaierako fasean parte-hartze bizkorragoa izan, izan ere, gure ustez, prozesua hobetzen ere lagunduko genukeen.

Nahi dugun parte-hartze bizkorrago horren arrazoia zera da, alegia, alde batetik, zorroko zerbitzuetako asko hirugarren sektore sozialeko erakundeek sustatu eta kudeatzen dituztela, eta bestetik, gure erakunde horietan bertan ordezkatura daudela zerbitzu horien erabiltzaileak diren pertsona asko.

Nolanahi dela ere, gure poza berresten dugu, aurrerapausoa eman dugulako gizarte-zerbitzuen sistema publiko bat eratze bidean».

▪ Adineko pertsonentzako egoitza-zerbitzuei buruzko dekretu-proiektua.

Jose Manuel Merino Pastor jaunak (LARES EUSKADI) galdetu du arau-proiektu hori zertan den, eta ea aukerarik dagoen arlo horretan lan egiten duten Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek parte har dezaten, laguntza edo lankidetzaren bitartez.

Gizarte Politiketako sailburuordeak erantzun du oraingo arautegia 1998koa dela -Hirugarren adinekoentzako egoitzako gizarte-zerbitzuei buruzko dekretua-, eta orain lanean ari direla hiru Lurralde Historikoetako Ikuskaritza Zerbitzuekin, arautegi hura

aldatzeko, baina oraingoz ez direla ukitu pertsonen ratioak, eta hori dela, hain zuzen ere, landu beharreko gaietako bat.

Amaieran, administrazio publikoek egoitza-zentroak instituzionalizatzeko daramaten politikaren inguruan eztabaidatu da.

- **Ordaintzera behartuta dauden pertsonen gizarte-zerbitzuen finantzaketan egin beharreko ekarpenari (“koordainketa”) buruzko dekretu-proiektua.**

Zerbitzuen doakotasunaren beharraren inguruko eztabaida planteatu da, batez ere, urritasuna duten pertsonentzako zerbitzuen kasuan.

5.PUNTUA.- EUSKADIKO ESKU-HARTZE SOZIALAREN ESPARRUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN 2015EKO DEIALDIA.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkariak jakinarazi dutenez, aurreko urtean, dirulaguntza horien 2015erako deialdiaren tramitazio aurreratua bideratu zuten eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 215. zenbakian, 2014ko azaroaren 11koan, argitaratu zen Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko azaroaren 5eko Agindua. Agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egin zen 2015erako.

Horri esker, dagoeneko lan saio bat egin ahal izan du Baloraziorako Batzordeak, aurkeztutako proiektuak edo jarduerak baloratzeko.

Horrez gain, egiaztatu ahal izan da eskabide gutxiago aurkeztu direla (549) aurreko urtekoen aldean (607). Horiek adierazten dute aurrekontu txikiago bat, 2014an aurkeztutako eskabide guztiek batzen zutenaren aldean.

Azkenik, adierazi du gizarteko esku-hartzearen arloko jarduerak edo proiektuak finantzatzeko helburua duen aurrekontuaren kreditua (4.697.480 €) aurreko ekitaldi ekonomikoan esleitutakoa baino txikiagoa izan dela. Horren arrazoia da dirulaguntza izendunak emanez egonkortu direla lehen deialdi honen babesean finantzatzen ziren hainbat proiektu eta jarduera.

Gizarte politiketako kontseilariak adierazi du kontzientea dela oraingo egoerak ez dituela guztiak gogobetetzen, baina hala ere, poztekoa dela deialdia epearen barruan egin izana.

Ondoren, hirugarren sektoreko erakunde eta antolakundeek eztabaidatu dute tramitazio aurreratua eginez lortu nahi ziren helburuez; helburu nagusia da proiektuak edo jarduerak aurkeztzen dituzten erakundeek urtearen hasieran ezagutu ahal izatea nolako finantzaketa edo diru-kopurua izango duten haiek aurrera eramateko, eta helburu hori ez da lortu tramitazio aurreratua eginez, izan ere, gaur-gaurkoz ez dakite zenbateko diru-kopurua izango duten.

Hori ikusita, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari hainbat konponbide planteatu dizkiote, esaterako urte anitzeko finantzazioa, horrek aukera emango lukeelako hurrengo urtean zenbateko finantzaketa izango duten jakiteko (HIREKIN), edo dirulaguntza ematea proiektua edo jarduera garatuko den urtearen aurreko urtearen amaieran, era horretan, erakundeak jakingo lukeelako zein diren eskura dituen baliabide ekonomikoak, bere jarduerak aurrera eramateko (HIRUKIDE).

Eztabaida horren aurrean, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendariak adierazi du egia dela guztia hobetu daitekeela, baina ez daitekeela ahaztu, dirulaguntza lehenik ebatzi eta ondoren ordaintzeko, hainbat izapide bete behar direla, besteak beste aurrekontuaren onarpena, hura eskuragarri jartzea eta ondoren, eskabideak grabatzea eta, behar denean, osatu edo zuzendu beharra duten eskabideen gaineko errekerimenduak egitea; hori guzti hori eskabideak balioesten hasi ahal izateko.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak erantsi du eskabideen tramitazio telematikoak haien kudeaketa arintzen duela, han jasotzen diren datuen grabaketa saihesten duelako.

Azkenik, hirugarren sektoreko erakunde eta antolakundeek planteatu dute berriro heldu behar zaiola sareen finantzaketa dirulaguntza izendunen bidez gauzatzeko auziari, horien zenbatekoak lehengo berak direlako, eta berraztertu behar dela horiekin lortu nahi den xedea, alegia, erakundeen egitura diruz laguntzea (antolakuntza eta funtzionamendua), edo erakundeek aurrera eramaten dituzten jarduerak.

6. PUNTUA.- ENPLEGURAKO ETA GIZARTERATZEKO EKINTZEN GARAPENERAKO DEKRETU ETA DEIALDIEN EGOERA.

▪ Europako Gizarte Funtza

Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendariak azaldu die Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kideei zein den Europako Gizarte Funttsaren baitako programetarako deialdien egoera: Eskualdeko Programa Eragileak (27.000.000 euroko zuzkidura) eta Gazteen Enpleguako Programa (12.000.000 euroko zuzkidura).

Aurkeztutako proiektuen balioespena martxoan eta apirila bitartean egingo da. Hala ere, aurkeztutako eskabideak ikusita ateratzen den ondorioa da eskabideek behar luketen diru-kopurua, eta zehazki, enpleguarekin lotuta aurkeztu diren proiektuak babesteko eskabideei erantzuteko kopurua, programa horiek hornitzeko esleitutako aurrekontua halako hiru beharko litzatekeela. Horren esan nahi du eskabideen ebazpena konplexua eta konprometitua izango dela.

Azkenik, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian bildu diren erakundeei jakinarazi die gogoan eduki behar dela, alegia, Europako Gizarte Funttsaren baitan jasotzen diren proiektuez gain, Europako Batzordeko Enpleguako, Gizarte Galetako eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Orokorretik enplegua helburu duten beste hainbat deialdi zabaltzen direla, gobernu zentraletik igarotzen ez direnak, eta eskuragarri daudenak modu zuzenean, eskualdeko proiektuak aurkeztuz gero.

▪ Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana

Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendariak azaldu du oraingo Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana 2012-2016 Gobernu Kontseiluak onartu zuela 2012ko ekainean. Ondoren erantsi duenez, legearen arabera, Eusko Jaurlaritzak, diru-sarreraren bermea eta gizarteratzeko gaietan eskumena duen sailaren bitartez, bost urtez behin Gizarteratze Aktiboko Euskal Planaren ebaluazioa egin behar du, ondoren Legebiltzarrerara eramateko, baina ebaluazio hori *ex ante* egin dago. Horren arrazoia da, Eusko Jaurlaritza berria eratu zenean, Enpleguako eta Gizarte Politiketako Sailaren helburuetako bat zela laneratzea eta gizarteratzea helburu zuten ekintzak sustatzea, eta horrek eskatuko duela gizarteratzeko

politika aktiboen inguruko gogoeta, partekatua egin beharko litzatekeena (Eusko Jaurlaritza, Lanbide...); horretarako, beharrezkoa zen ebaluazioa aurreratzea.

Gainera, adierazi du kontuan izan behar dela legeak hiru organori ematen dizkiela gizarteratzeko gaien gaineko eginkizunak, alegia, Gizarteratzeko Sail-arteko Batzordeari, Gizarteratzeko Institutio-arteko Batzordeari eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari. Azken honi dagokio Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema hobetzeko gomendioak egitea, horretarako urtean behin Gizarteratzeko Euskal Planaren gauzatzearen jarraipena eta ebaluazioa jasoz, txosten batean.

Lege markoa hori izanik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ustez, Gizarteratze Aktiboko Plan berri bat egiteko lana txosten horretatik abiatu behar da, han zehaztu beharko direlako hobetu beharreko puntuak, eta handik abiatuta finkatu beharko dira hobekuntzarako eman beharreko urratsak. Horren guztiaren oinarrian dago Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak errealistagoa izan nahi izan duela, eta gizarteratzeko politiken kudeaketan zaluagoa eta eraginkorragoa.

Ondoren, hirugarren sektoreko erakundeek eztabaida egin dute Gizarteratze Aktiborako II. Euskal Planak (2012-2016) jasotzen dituen helburu eta neurriei buruz (enplegu arrunta, enplegu babestua, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea), eta haien komenigarritasunari buruz; izan ere, helburu eta neurri horiek 2008ko eta lehenagoko datuetatik abiatuta ezarri ziren eta, beraz, ez ziren gaurko egoera ekonomikoa agerrarazteko baliagarriak.

Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzari planteatu zaio premiazkoa dela lehenbailehen plan berri bat prestatzea, oraingoak ez duelako, ez helbururik, ez eta baliabide ekonomikorik ere. Hori konpondu ezean, legegintzaldia amaituko da Plan berririk gabe, eta laneratze aktiborako ekintzetarako baliabide berririk lortu gabe.

▪ **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuak 2015eko ekitaldi ekonomikorako.**

Lanbideren zuzendari nagusiak azaldu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuek lehengo urtekoen ildo beretik jarraitzen dutela, Elkarrizketa Zibilerako Mahaian dauden hirugarren sektoreko erakundeek antolatzen dituzten jarduerai dagokienean.

Horri erantsi dio Lanbideko Administrazio Kontseiluak hurrengo martxoaren 18ko lan-saioan onartuko dituela 2015eko deialdiak laguntza-ildo hauetarako:

- laneratze enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak.
- desgaitasuna duten langileek Enplegu Zentro Berezietan dituzten enpleguei eusteko laguntzak
- mendetasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileak ordeztzeko laguntzak (177/2010 dekretuko IV. kapitulua).
- gazte langabeak euskal enpresetan kontratatze laguntzak.

Halaber, martxoaren 25ean onartuko dira prestakuntzarako laguntzen deialdiak.

Azkenik, Esteban Rivas Calzada jaunak (GIZATEA) planteatu duenez, hobetu egin behar da desabantailan dauden kolektiboetako pertsonen enplegurako orientazioa eskaintzeko deialdiak abian jartzeko modua; izan ere, orain dela hiru urtetik, eta gaur oraindik ere, ez

dakite zenbat pertsona kontratatzeko moduan egongo diren, eta horrek ezinegon sortzen du, erakundeetan ez ezik, ekimen horien erabiltzaileengan ere.

Lanbideko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak erantzun du, labur bada ere, deialdiaren disfuntzioak bi aldeetatik datozela (esleipena hartu duten erakundeak eta Lanbide), eta garrantzitsuena izanik pertsonen arreta ematea, ondo gogoan dutela oraindik asko dutela hobetzeko prozesu, bitarteko eta abarrei dagokienez.

Lanbideko zuzendari nagusiak erantsi du inoiz ez dela izan inongo erakunderi kalterik eragiteko asmorik, baina oraingo egoera ekonomikoak eragozpenak ekarri dituela. Horrek ez du esan nahi arazoaren larritasuna ezagutzen ez dutenik eta, Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak esan duen moduan, badutela zer hobetua.

7. PUNTUA. ESKAERAK ETA GALDERAK

Gizarte Politiketako sailburuorde Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jaunak azaldu duenez, kontuan hartuta Elkarrizketa Zibilerako Mahaia hiru hilabete behin bildu ohi dela, litekeena dela bera hurrengo bileran ez egotea eta, beraz, organo honetako kide guztiei agur esateko aprobetxatu nahi duela aukera hau, eta bidenabar guztiei elkarrekin egindako lana eskertzeko.

Ondoren, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendari Xabier Otxandiano Martinez jaunak bere egin dituen sailburuak esandako hitzak.

Eta beste gairik ez dagoenez, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko presidentek adierazi du saioa amaitu dela, arratseko 19:00ak direla.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 14a.

O.E.:

Gonzalo Rodríguez Agirregoitia jauna

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko lehendakaria

Miguel Ángel Hurtado Pedroso jauna

Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko idazkaria.